



2026SPLE0002
2.bilera: OHIKOA 2026/03/26

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2026/02

EGUNA: 2026/03/26

HASIERA ORDUA: 19:00

AMAIERA ORDUA: 19:25

TOKIA: Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoa.

BERTARATUAK:

Alazne Txurruka Allika, alkatea.

EAJ-PNV udal taldea:

Asier Urain Buenetxea.

Jon Riaño Ojanguren.

Monica de Prado Paniagua.

Anton Garay Berezibar.

Ainhoa Urbieta Egaña.

EH Bildu udal taldea:

Gilen Garcia Boyra.

Itziar Irizar Beristain.

Antxoka Elorza Altuna.

Aritz Larrañaga Unanue.

Edurne Aristi Careaga.

Jon Ander Urain de Jesus.

Orain Deba udal taldea:

Isidro Aristi Oruezabal.

Idazkaria: Iñaki Galdos Landa.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.

1.- Alkatetzaren dekretuen kontrola.

Ondorengo Alkatetzaren ebazpenen berri eman zen: 2026ko otsailaren 23ko 79 zk.tik, 2026ko martxoaren 23ko 140 zk.ra (biak barne).

Alkateak galdetu zuen ea inork zerbait esateko ote zuen Alkatetza dekretuen harira.

Gilen Garcia jaunak, Udal 29065 BN bide publikoa erabiltzeko baimena ematen zuen 2026/119 zenbakidun dekretuaren inguruan galdetu zuen, ea Batzordean komentatu zen gaia den, hala balitz, batzordean komentatu zenaren inguruko jarraipena egiteko asmoz.

Alkate andreak erantzun zion, egurra ateratzeko baimena zela, baina ez zekiela zehazki zein lekutan zen. Galdetuko zutela non zen eta erantzuna emango ziotela gehitu zuen.

Ondoren, Gilen Garcia jaunak, Udaleko informaziorako Barne Sistemaren(ISS) arduradunaren izendapena egiten zuen 2026/140 zenbakidun dekretuaren inguruan zer zen galdetu zuen.

Alkate andreak erantzuten dio, barne kontrola egiteko sistema dela eta Kontu-hartzailea horren arduradun izendapena egiten dela

Idazkari jaunak esan zuen salaketa kanal baten arduraduna izendatzen zela ebazpen horretan.

Jon Riaño jaunak gehitu zuen erakundeak behartuta zeudela, egon zitezkeen irregulartasunen berri jasotzeko barne sistema bat izatera, eta sistema horren arduraduna izendatzen zela.

Gilen Garcia jaunak, ulertu zuen, barne mailan, langileren batek, salaketaren bat izanez gero, kontu-hartzailearen ardurapeko bideratutako sistema bat zela.

Ez zen egon galdera edo iradokizun gehiago, eta Udalbatzak jakinaren gainean geratu zen.

2.- Onartzea, hala badagokio, herriko gune arautuetan ibilgailuak aparkatzean jabego publikoa erabili edo aprobetxatzeari buruzko ordenantzaren (TAO) aldaketa.

Alkate andreak aipatu zuen 2026ko martxoaren 16an Antolakuntza Batzordeak Herriko gune arautuetan ibilgailuak aparkatzean jabego publikoa erabili edo aprobetxatzeari buruzko ordenantzaren (TAO) aldaketa onartzeko aldeko irizpena aho batez eman zuela.

TAO ordenantza, 2023ko urtarrilaren 12an argitaratu zen GAO-n, eta Osoko Bilkurara ekartzen zen proposamenak, sei aldaketa zekartzala aipatu zuen.

Batetik, sektoreak aipatzen zituen hirugarren artikuluan, lehenengo sektorea desagertu egiten zela, eta aurrerantzean bigarrenetik aurrera zenbakitzen zirela sektoreak.

Hirugarren artikulua horretan bertan, zazpigarren sektorean, hau da , herriko alde zaharrean, aurretik falta zen Gurutze kalea ere bertan txertatu izan zela.

Hirugarren aldaketa laugarren artikuluan izango litzateke, eta 5,5 metro edo luzeagoak ziren ibilgailuak edo ibilgailu taldeak, debekatuta izango zutela aparkatzea urte osoan. Argitu nahi izan zena zen debekatuta zeukatena, aparkatzea zela.

Laugarren aldaketa, 5.1 artikuluari zegokion, eta bigarren sektoreko txandakako aparkaldi eremuan, aparkaldiaren lehen ordua dohainik izango zen. Lehen bezala, hiru orduko iraupena izan zezakeen, baina lehen ordua dohainik izatera pasako litzateke.

Bosgarren aldaketa, hamabigarren a.1) artikuluan, bertakoen txartela lortu ahal izateko, txartel jaulkitzen zen unean ez zuten zorrik izan beharko Debako Udalarekin.

Lehengo ordenantzan, hori zehazten ez zenenez, beste erakundeekiko zorrik izan zitezkeela uste izaten zen, eta Debako Udalarekin ere ezin zitezkeela zorrik izan, argi utzi nahi izan zen.

Azkeneko aldaketa hamalagarren artikuluan zen, zigorrak eta araubide neurriak zehazten zituen seigarren atalean, ibilgailuak ibilgetzeak edota bide publikotik kendu eta gordailuan egoteari zegozkion tasak, ordenantza fiskaletan xedatutakoak izango zirela.

Horrela, tasa horiek, urteko onartuak izaten diren ordenantza fiskaletan zehaztuak izango lirateke.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen Herriko guneko arautuetan ibilgailuak aparkatzean jabetza publikoa erabili edo aprobetxatzeari buruzko ordenantzaren (TAO) aldaketa.

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA

GEHIENGOA OSOA

-ALDEKO BOTOAK: 13 (EAJ/PNV, 6; EH BILDU, 6 eta ORAIN DEBA, 1)

3.- Onartzea, hala badagokio, Debako Udaleko 1. Kreditu aldaketa

Alkate andreak aipatu zuen, kreditu aldaketa honen proposamena, 2026ko martxoaren 16ko Antolakuntza Batzordera eraman zela.

Kreditu aldaketa honen helburua Paseo Estaliko obren bigarren faseari ekiteko izango litzatekeela, eta bere kopurua, altxortegiko gerakinetik aterako zen 274.000

eurokoa zela, aipatu zuen.

Puntu honetan aipatu zuen, alde batetik, bigarren fase honi aurre egiteko, Ondareak, 199.000 euroko dirulaguntza eman zuela, hiru urteetan zehar ordainduko zena, eta bestetik, Ministerioari Kulturako %2ko dirulaguntza ere eskatua izan zela, momentuz erantzunik jaso gabe zeudela, eta handik, gehienez ere 50.000 euro jasoko liratekeela.

Hala ere Osoko Bilkurara ekarri zen kreditu aldaketa, 274.000 eurokoa izan zela, Paseo Estaliaren obren bigarren faseari ekiteko.

Kontutan izanda 2026ko martxoaren 16an Antolakuntza Batzordeak Debako Udaleko 1. Kreditu aldaketa onartzeko aho batez emandako aldeko irizpena.

Ondorengo Debako Udaleko 1. Kreditu aldaketa ikusirik:

GASTOAK		
Kapitulua	Gastuen egoera	
6	Paseo Estaliko obrak- 2. fasea	274.000 €
ERABILITAKO BALIABIDEAK		
Kapitulua		
8	Altxortegiko gerakinak	274.000 €

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen Debako Udaleko 1. Kreditu aldaketa.

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA
GEHIENGOA OSOA

-ALDEKO BOTOAK: 13 (EAJ/PNV, 6; EH BILDU, 6 eta ORAIN DEBA, 1)

4.- Onartzea, hala badagokio, Deba gune tentsionatua izendatzeko eskaera erregistratzea.

Alkate andreak zuzenketa bat egitea nahi zuela aipatu zuen. 2026ko martxoaren 18ko Lurraldetasun Batzordeko irizpenean, Isidro Aristi Zinegotzia bilera horretara ez zela bertaratu jartzen zuela, eta hori egia ez zenez, bere izena ere gehitu beharko zela bertaratutakoen zerrendan.

Kontutan izanda 2026ko martxoaren 18an Lurraldetasun Batzordeak Eremu tentsionatuaren Diagnostikoa, justifikazio memoria eta ekintza plana onartu eta Eusko Jaurlaritzan erregistratzea eremu tentsionatuen deklarazioa eskatuz

onartzeko aho batez emandako aldeko irizpena.

Alkateak azaldu zuen, aurkeztutako dokumentuak aztertu zirela eta adostu zela dokumentu horiek bere horretan Eusko Jaurlaritzara bideratzea ahalik eta azkarren.

Baita ere, ekintza planak, aldaketaren batzuk izan zitzakeela ere aurreikusi zutela eta horiek guztiak, Lurraldetasun batzordean edo bestelako bileretan aztertuak izango liratekeela eta guztion adostasunarekin aurrera egingo zela.

Alkate andreak gehitu zuen hori zela adostatutakoa, eta hori zela ere, Osoko Bilkura horretan hartzen zuten konpromisoa.

Bozketa egin ondoren, Udaltzarak, aho batez, onartu zuen Deba gune tentsionatua izendatua izan zedin, Diagnostikoa, Justifikazio memoria eta Ekintza plana, Eusko Jaurlaritzara bidaltzea, eremu tentsionatuen izendapenerako.

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA

GEHIENGOA OSOA

-ALDEKO BOTOAK: 13 (EAJ/PNV, 6; EH BILDU, 6 eta ORAIN DEBA, 1)

5.- Anton Garay Berecibar EAJ/PNV udal taldeko zinegotziaren karguari uko egitearen berri hartzea

Alkate andreak azaldu zuen, Anton Garay EAJ Udal taldeko Zinegotziak, martxoaren 11an jakinarazi zuela zinegotzi karguari uko egiten ziola.

Osasun kontuak zirela eta, karguari berak nahiko lukeen bezala erantzun ezin zionez, zinegotzi izateari uztea erabaki zuen, eta horren berri eman zitzaion Udaltzarrari.

Horren ondoren, bere ordez zinegotzi berri bat izendatzeko beharrezkoak diren izapideei hasiera emango zitzaion.

Osoko Bilkurak, Anton Garay jaunak Zinegotzi karguari uko egitea kontuan hartu zuen.

Alkate andreak eskerrak eman zizkion Anton Garay jaunari, bai Udalaren izenean, baita udalerraren izenean ere, ia hiru urte hauetan egindako lanagatik. Zinegotziaren ardura izan ziren obrak eta zerbitzuak kudeatzea eta Debabarrena Mankomunitatean ere, Debako ordezkaria izan zela.

Alkateak eskerrak eman zizkion, bere izenean ere, bere alderdiko kide izanda, egindako lan guztiagatik. Berriz ere, eskerrik asko.

Gilen Garcia jaunak, ildo beretik, eskerrak eman zizkion. Aipatu zuen horrelako erabaki bat hartzea ez zela erraza, batez ere, konpromezu bat hartutakoan, eta bere babes osoa eskaini zion.

6.- Eskari eta galderak.

Gilen Garcia jaunak bi aipamen egin nahi zituela esan zuen.

Lehenengoa. Korrikari buruzkoa.

Atzoko egunean, Korrika gure herritik igaro zen. Bere momentuan komentatu zuten, antolaketa kontutan hainbat gora behera egon zirela. Bera, pertsonalki pare bat aldiz bildu zen, bai Alkatearekin eta baita Jon Riaño Zinegotziarekin, eta bere prestutasuna helarazi zuela une oro, dena argi eta elkarlanean egiteko.

Adostua zuten testigua nola hartuko zen, hitz eginda zegoen zer puntutan hartuko zen eta gainera Korrikaren batzordetan hitz egin zen kilometro hori bi zatitan taldeka egingo zela, eta gure zatia, gu hiru eragileon artean, Debako EAJ/PNV, Deba eta Itziarko Euskalerrria Bildu, eta Debako Udala. Debako Udalaren kasuan, langileek eramango zutela adostu zen ere, eta nortzuk ere.

Kontua izan zen berari egokitu zitzaiola EH Bilduren izenean lekukoa eramatea, eta irudietan ikusiko zuten bezala, ume txiki bat zeraman bere gainean eta horren kezkarekin, pixka bat aurrerago jarri zen.

EAJ EH Bildu eta Debako Udala denok batera zihoazenez, bera bertan zegoen, eta heldu zirenean, berak lekukoa hartu behar zuen tokira, ez zitzaion eman. Horri ez dio esaten borondate txarrarekin egindako zerbait izan zenik.

Baina kontua izan zen, nire aurrean neukan zinegotziari, Kultura Zinegotziari, bizkarra ukitu niola, begiratu zidala eta ez zidala kasurik egin.

Orduan, nire bikotea ere bertan zegoela, eta bera pixka bat animatuago, abotsa altxatu zuen eta orduan bueltatu zen Andima, eta testigua eman zidan. Baina hori gutxi ez, eta gainera oihuka aurpegiratu zidan, eskatu ba!.

Hainbeste alditan testigua eskatzen ibili behar hori, nahiko egoera deserosoa egin zitzaion, batez ere, bera gainontzeko zinegotziekin guzti hori koordinatzen izan ondoren. Uste du, gauza horietan detaile gehiago izan behar zela.

Behin eta berriro detaile guzti hauek nola izan ziren aipatu zituen, baina uste zuen beti errenak zeudela hanka berdinetik, eta aipamen hori egin nahi zuela.

Horretaz aparte, komunikazioari dagokionez, inoiz aipatu izan zuten ez zirela sartzen gehiegi, azkenean Alkateak erabakitzen duelako Udalaren komunikazioa nola bideratu, baina Debako Udala ez dela bakarrik Debako Alkatea esan zuen..

Aipatu zuen Kilometro horretan denok ginela, eta ez zuela protagonismo berezirik eskatzen, bazekielako legealdi honetan, EH Bilduren ordezkariak gobernu taldearekin batera agertzen ziren argazkiak, bat baino askoz gehiago ez zirela izango, baina deigarria iruditzen zitzaien, langileak agertzen zirela, ondoan zirelako.

Udalaren publikazioan lau edo bost argazki bazeuden, Alkatea bakarrik agertzen zela lekukoa eramaten. Bere ustetan, Udala zen heinean, eta herritar guztien ordezkari ziren heinean, eta beraiek ere Udala ordezkatzeko zuten heinean, eta berriro errepikatuko zuen, bozka gehien jaso zuen alderdia ziren heinean, hor egotea ere ba zegokien.

Gobernu taldearen erabakia zela eta beraiek erabaki beharko zutela Udalaren partetik zer eratako komunikazioa eman.

Bere taldeak ez zuela hori partekatzen aipatu zuen. Iruditzen zaie ondo dagoela Alkatearen irudia indartzea, Alkatea guztion ordezkaria delako herriren aurrean eta beste erakunde batzuetan, baina hala ere, iruditzen zitzaion gauza horiek zaindu egin behar zirela, eta benetan oinarri demokratikoetan oinarritzen bagina, zegoen errealitate bat ez zela estali behar, baizik eta ikusarazi egin behar zela.

Udal langileek ere lekukoa eraman zuten eta udal langileen argazki bat bera ere ez zegoela aipatu zuen. Uste zuen hori aldatu beharko luketela eta begirune gehiago eduki udal langile eta gainontzeko ordezkari politikoekiko.

Hori Korrikarekiko.

Alkateak, jasota gelditzen zela aipatu zuen.

Gilen Garcia jaunaren bigarren aipamena, Hirigintza Sailaren berrantolaketari zegokionean, bere pena adieraztea zen.

Bilera bat izan genuen pasa zen egunean, eta, egia zela, bilera horren data jarri zutenean, adostu zutela, teknikariak eta hirigintzako saileko langileak ere bertan izango zirela.

Hara heldu zenean, bere sorpresarako, ez zegoen teknikari bat bera ere ez, eta Bozeramaile Batzorde bat zirudien.

Azaldu zitzaion teknikari bat urgentziazko egoera batengatik ezin izan zela bertan izan, eta erabat ulergarria iruditu zitzaiola esan zuen. Horra arte ondo, eta bileran aipatutakoa ere, ondo.

Kontua izan zen, eta hori zela batere gustuko ikusten ez zuena, eta batzutan sentitzen zuela tenteltzat hartzen zutela.

Horren inguruan barre ez egiteko eskatu zuen, hori bait zen bere sentsazioa, hau da, batzutan tenteltzat hartua sentitzen zela, bai bera eta baita bere taldea eta ordezkatzeko zituzten guztiak ere, nahiz eta gai delikatuenetan lan politiko serio bat egiteko, gobernu taldearekin diskrezioan egiten zuten esfortzuarekin.

Bera tentela ez zela adierazi ondoren, aipatu zuen zergatik sentitu zen tenteltzat hartuta.

Kasualitatez jakin izan zuela, langileei adierazi zenietela ez zirela bilerara etorriko eta, ondoren, haiekin hitz egingo zenutela. Gehitu zuen hori ez zela berearekin adostu zena.

Hori horrela izanda, gero jakin izan zuela, ez zekien bilera baten bidez edo beste eraren baten bidez, jakinarazi zitzaiela pixka bat nola izango zen.

Errealitate hau ikusita, bere taldeko borondatea zela, nahiz eta bere bitartez izan hein handi batean, baina taldekoa zela, kolektiboa zela, desbinkulatu egiten zirela erabakiak horrela hartzeaz, hau da, ardura osoa, komunikazioarekin bezala, beste detaile zatar horiekin bezala, zuen esku gelditzen zela esan zuen.

Erantzukizun osoa zuena izango zela, berak ez zuela hortaz ezer jakin nahi, ez zuela horretan parte hartzerik nahi.

Aipatu zuen bera prest zegoela Debako udalak ahalik eta baliabide txukunenak izatera, prest zegoela bere argudio guztiak, inkluso kontraesankorrak zirenean, askotan politikoki, eta alderdien dinamikan baitan sortzen ziren tira bira horien baitan kontraesan pila bat asumitzen zituela, besteen posizioa ulertzeko, besteek hartzen dituzten erabakiak hartzeko.

Baina gero konturatzen zela atzetik beste modu batetara jokatzeko zutela, eta uste zuen hori ez zela batere zintzoa. Ez zela batere zintzoa berarekiko, pertsonalki, ezta politikoki ere.

Hortaz, esan zuen jakin zezatela, informalki esaten den bezala “allá cuidaos”, hau da, beraiek ikus zezatela nola hartzen zuten beraien erabakiak, baina horrela jokatzeko, bere taldearekin ez kontatzeko.

Alkate andreak erantzun zion esanez inoiz ez zutela bera tenteltzat hartu, eta ez zutela uste tentela zenik, ez bera, ezta bere taldekideak ere, eta hori oso argi gelditzea nahiko lukeela.

Beste askotan esan izan zion bezala, berak eta bere taldekide guztiek bera errespetatzen zutela. Nahiz eta euren arteko desberdintasunak izan, errespetatzen zutela, eta Alkateak, bereziki errespetatzen zuela Gilen Garcia jauna, sinistu edo ez, eta hori horrela zela eta hori argi gelditzea nahiko lukeela

mundu guztiaren aurrean.

Langileei bilera horretara ez joateko adierazi zitzaiela egin zen aipamenari buruz, Alkate andreak esan zuen hori ez zela horrela.

Hitz egin zutela arkitekto tekniko batekin eta esan ziela bilera bat zuela ordu horretan, eta guk lehenengo bilera elkarrekin zuekin egin eta bere beharra izango bagenu, berari deitzekotan gelditu zirela, eta uste zuela hori bileraren hasieran aipatu zuela.

Gilen Garcia jaunak dio hori ez dela horrela, Idazkaritzako Administrazio Orokorreko Teknikari bat zela eta aipatu zela, guk nahi izanez gero etortzea, esango zitzaiola.

Alkate andreak esan zuen, berak esaten zuena, Arkitekto bat zela, zeinek bilera bat zeukan, eta esan ziotela, lehenik zurekin bilera izan ondoren deituko geniola. Gero, bilera beste bide batetik joan zen, eta han ere gelditu ginen egingo zirela bilera gehiago eta adostuko genituela beste gauza batzuk ere, eta hori argitzea besterik ez zuela nahi

Gainerako iritziak edo usteak, onartzen zizkiola, eta jasota gelditzen zirela esan zion.

Amaitzeko Gilen Garcia jaunak, Alkatearen hitzak eskertu nahiko lukeela aipatu zuen, ondo hartzen zituela, baina, benetan, esango ziela, errespetua, hitzekin, noski, baina gehien bat ekintzekin demostratzen zela.

Berarekiko eta talde osoaren izenean komentatzen baldin bazuen, aipatu zuen mugak jarri beharko litzaizkiekeela, berarekiko zeuden keinu zatar desberdinei, horrelako egoerei.

Esatea errespetu osoa zenutela, hori erakutsi egin behar zela aipatu zuen, eta gauza hauek ez zutela erakusten. Beste hainbat gertakari hemen eta beste egoera batzutan eman izan zirenak, ez zutela hori erakusten.

Esan zuen saiatu zela egoera hau ahalik eta modu txukunenean azaltzen, baita ere aurreko puntuan, hau azaltzen.

Aipatu zuen, laster zinegotzi izango zela horrela iseka egin zionak, eta bertan zegoen Kultura Zinegotziak, begirada kentzen ziola udaletxean eta kalean, egoera hura izan zutenetik, non aurpegiratu zion “que atara a mis cachorros” eta exigitu behar izan ziola Alkateari, barkamena eskatzeko, ez zuelako nahi, eta ordutik ez zuela agurtzen, begirada txarrak jartzen zituela, eta begirada kentzeak ere izaten zituela.

Hori baldin bazen ordezkari publiko baten, bere herriko Kultura Zinegotziaren

jarrera EH Bildurekiko, Bozera mailearekiko, eta Alkate ohiaiekiko baita ere, hori ez zela errespetua ondorioztatu zuen, eta Alkatearen taldeko kidea eta Udal honetako Zinegotzia zela gehitu zuen.

Hortaz, errespetua benetan mahai gainean jarri nahi izanez gero, beharrezkoa zela errespetua egikaritzea, eta ez bakarrik elkar errespetatu behar zutela edo elkar errespetatzen zutela esatea.

Goazen errespetatzera benetan.

Besterik ez zegoenez, 19:25etan alkateak amaitutzat eman zuen osoko bilkuraren bilera.

Alazne Txurruka Allika
Alkatea

Iñaki Galdos Landa
Idazkaria